


berrikuntza  
publikoaren  
plana



plan de  
innovación  
pública

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**Eusko Jaurlaritzaren  
Berrikuntza Publikoaren Plana  
2014-2016  
EBALUAZIO-TXOSTENA**

(0.0. bertsioa)

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abendua



## Aurkibidea

1. SARRERA .....	3
2. 2014-2016 BPPAREN IKUSPEGI OROKORRA, AURRERAPENAK ETA MUGAK.....	4
3. HELBURU ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOA.....	7
4. IKASITAKO IRAKASPENAK .....	16
5. EGIKARITZE-EGOERAREN ETA PROIEKTU ETA AZPIPROIEKTUEN BALORAZIOAREN LABURPEN-TAULA .....	18
6. PROIEKTUEN EGIKARITZE-FITXAK.....	20



## 1. Sarrera

2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Plana (BPP) 2014ko ekainaren 17an onartu zen. Plan horretan, azken ebaluazioari buruzko txosten bat egitea aurreikusten da, zer emaitza lortu diren eta ezarritako helburuak zer neurritan bete diren azaltzeko.

BPPak baditu horretarako behar diren kudeaketa-eredua eta aginte-koadroa, objektibotasunez ebaluatu ahal izateko bete ote diren Planaren helburuak, zer emaitza lortu diren jarduera-ildo bakoitzean eta zenbateraino egikaritu den proiektu bakoitza.

Horixe da, hain zuzen ere, ebaluazio-txosten honen xedea: argi eta garbi azaltzea zein den Planaren balantzea, aztertzea zer-nolako aldaketak egon diren aurreikusitako helburuetan eta etorkizunean hobetzen lagunduko diguten irakaspenak ateratzea.

Ebaluazio honen asmoa izan daiteke, baita ere, ikastea eta hobetzea; hain zuzen, esku-hartze publikoen ex post ebaluazioen berezko ezaugarria da hori. Beraz, emaitzen azterketak politikan egin litezkeen aldaketak orientatzen lagunduko du, eta egikari beharreko proiektu eta neurri berrien diseinua inspiratuko du.

Noski, ebaluazio honek kontuak emateko konpromisoari ere erantzuten dio, ezinbestekoa baita edozein politika edo esku-hartze publikotan.

2014-2016ko BPPa formalki 2014an onetsi bazen ere, aurreko 2011-2013 BPParen eboluzioa da, haren formulazio estrategikoaren osagai egonkorrenetatik abiatuta egina. Izan ere, 2014-2016koak barne hartzen dituen proiektu asko –batez ere administrazio elektronikoaren esparrukoak– aurreko BPPan jasotako proiektuen jarraipena edo eboluzioa dira, eta BPPra berriro sartutako proiektu batzuk 2014aren hasieratik jarri ziren abian. Beraz, txosten honek Planaren ebaluazioaren berri emango du, aurreko BPPa bukatu zen datatik (2014ko urtarrila) 2016ko abendura arteko aldiari buruzkoa.



## 2. 2014-2016 BPParen ikuspegi orokorra, aurrerapenak eta mugak

Epe horretan, hainbat aurrerapen egon dira BPPa osatzen duten ardatz estrategikoetan, nahiz eta aurrerago azalduko ditugun arrazoiengatik aurrerapen horiek berdinak izan ez diren. Jarraian, izandako une eta aurrerapen gogoangarrietako batzuk nabarmenduko ditugu:

**1. ardatz estrategikoan (Gardentasuna eta Gobernu Ona)**, hainbat urrats garrantzitsu eman dira, eta eutsi egin zaio 2014an eta baita 2016an ere [gardentasun-lidergoari autonomia-erkidegoen rankingean](#) (Nazioarteko Gardentasunak sustatzen du rankinga); gainera, 2014an eta 2016an puntuazio maximoa lortu du (100etik 100). Kontuan izan behar da 2016ko ebaluazioak balorazio kuantitatiboa ez ezik, balorazio kualitatiboa ere bildu zuela eta aparteko erronka izan zela, informazioa erraz eskuratzeko moduan argitaratu behar baitzen, modu ulergarrian, eguneratua eta berriz erabilia ahal izateko moduan. Informazio guztia eskuragarri dago Gardena-gardentasunaren gure atarian. Bestalde, gardentasunaren eta Gobernu Onaren bidean beste urrats batzuk ere eman dira: informazio publikorako irispiderako eskubidea lege ezarritako epea baino urtebete lehenago ezartzea lortu da; Gardentasunerako gida (Gardentasunean ontziratuko gara) argitaratu da; lankidetzan egin dute eta argitaratu dute [Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria](#), eta liburu horretan ezarri ziren konpromiso gehienak gauzatu dira; Herritarren parte-hartzeko prozesuak egikaritzeko gida egin da, baita prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko eredu bat ere; Gobernu Kontseiluak onartu egin ditu Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko eta Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu onaren lege-aurreproiektuak –EAEko Administrazio Publikoaren lege-proiektuaren orde z jarri ziren, Eusko Jaurlaritzak kendu baitzuen ez zuelako bideragarria ikusten Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoekin gehiengoaren akordioa lortzea eta gero, bertan behera geratu ziren hauteskunde autonomikoetako deia egin zelako—; [Open Data Euskadiren eboluzio](#) esanguratsua, estatuaren eta Europaren esparruan datu publikoak irekitzean lider izateko, eta erabiltzaileen, proiektua garatzen dutenen eta, oro har, [“Open Irekia – Gobierno Abierto”](#) izeneko softwarearen aplikazioaren komunitatearen esku jartzeko, betiere Europar Batasunaren lizentzia publikoaren pean.

**2. ardatz estrategikoan (Herritarrekiko elkarrekintza)** ere hainbat aurrerapauso eman dira; besteak beste: Interneteko presentzia-ereduen eboluzioa; web atarien sarea [“.eus” domeinu](#) berrira egokitzea eta herritarren eskaeren arabera moldatzea; Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren eboluzioa, gailu mugikorretara egokituz eta weberako irisgarritasuna hobetuz, eta zerbitzu elektronikoaren erabiltzaileen arretarako zentroaren sorrera [\(CAU-ZE\)](#); hau da, zerbitzu elektronikoaren



kudeaketari behar duen euskarria ematen dion antolaketa-egitura, bai herritarrei begira, bai izapide elektronikoen tresna bateratuak erabiltzen dituzten barne izapidegileei begira). Herritarrekiko elkarrekintzaren kalitate-konpromisoa Zuzenean zerbitzua erabili duten pertsonen batez besteko balorazioan islatzen da (zerbitzuaren kalitate orokorra), gainditu egin baita 2016rako finkatutako 8,0ko helburua: 2015ean 8,5eko puntuazioa lortu da eta 8,7koa 2016an.

**3. ardatz estrategikoan (Antolamendua egokitzea)**, hainbat aurrerapauso eman dira Administrazio Orokorra Dimentsionatzeko proiektuetan, baita intraneten eboluzioan eta barne kudeaketa elektronikoen ere.

**4. ardatzean (Kudeaketa hobetzea)**, urrats garrantzitsuak egin dira [AURRERABIDE](#) programaren esparruan, Eusko Jaurlaritzan eta haren mende dauden organismo autonomoetan kudeaketa publiko aurreratuaren eredu orokorra ezartzeko eta pertsonen trebetasun berriak garatzeko zerbitzu publikoen hobekuntzari begira. Proiektuaren inguruan laguntza eta adostasuna sortzeko fasea egin ondoren, [Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua](#) egin, eta [Egiten Ikasi](#) prestakuntza-ekintza programa martxan jarri da. Programa horretatik pasa dira Eusko Jaurlaritzaren antolaketa-unitate guztiak, ondoz ondoko hiru urteko fasetan. Kudeaketaren ebaluzio pilotu bat ere ezarri da. Hori dena Gobernu Kontseiluak berretsi eta sustatu du, kudeaketa publiko aurreratuaren eredu aldi berean onetsiz eta "Egiten Ikasi" proiektuan unitate guztiek parte hartuz, berau ezartze aldera.

**5. ardatz estrategikoan (Administrazio elektronikoa)**, nabarmentzekoa da zer aurrerapauso eman diren zerbitzu elektronikoen plataforma orokorraren eboluzioan: TRAMITAGUNE; PLATEA Tramitazioa; PLATEA dokumentala (DOKUSI); PLATEA Internet eta ZUZENEAN zerbitzua. Azpiegituren erabilgarritasuna, eskalagarritasuna eta errendimendua bermatzeko behar den eboluzioari eusteaz gain, hainbat hobekuntza ezarri dira funtzionaltasunaren eta erabilgarritasunaren arloan. Hala, funtsezko hobekuntzak sartu dituzte tresnen hizkuntza-normaltasunari eta estandarizazioari dagokienez. TRAMITAGUNEan, tramitazio elektronikoa batzuk sartu dira: erregistroak, ziurtagiriak, baimenak, erreklamazioak, herritarrekiko elkarrekintza, administrazio-jarduerak eta barne prozesuak. Horrez gain, nabarmentzekoa da formularioen Toolkit-ak izandako eboluzioa, tresna horrek asko errazten baititu herritarren tramite elektronikoa, eta, gainera, aukera ematen die prozedurari buruzko informazio publikoa egiten den momentuan alegazioak egiteko egoitza elektronikoen iragarki-taula elektronikoren bidez.

Bereziki aipatu behar da ezen, administrazio-prozedurak digitalizatzeko aurrerapenei esker, Tramitagune eta Platea Internet tresna garrantzitsuak bihurtu direla informazioaren argitalpenak



automatizatzeko (Gardentasunaren eta informazio publikorako irispide-eskubidea ezartzeko legeak agintzen du informazioa argitaratu beharra).

BPPa ez da abiadura berean aplikatu ardatz eta proiektu guztietan. Horietako batzuk, zehazki, 3. ardatza (Antolamendua egokitzea), eta 6. ardatza (Elkarrekin sortuz berritzea) aldatu behar izan dira, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

BPP ikuspegi integralarekin egin zen, hainbat alderdi aintzat hartu nahi izan zirelako Administrazio publikoaren zerbitzuen kalitatea eta funtzionamenduaren efizientzia hobetzeko, bai eta Administrazio irekiagoa, gardenagoa eta partizipatiboagoa lortzeko bidean aurrera egiteko ere.

Alabaina, Plana onartu bazen ere, planak biltzen zituen proiektu guztiak egikaritzeko baliabideak ez ziren esleitu, proiektuak egikaritzea BPP bultzatzeko ardura zuten organoetako giza baliabide propioen esku geratu baitzen. Eta egiaztatu denez, baliabide horiek ez dira nahikoak izan Planean bildutako ekimen guztiak egoki kudeatzeko. Horrek proiektu batzuk lehenetsi beharra ekarri du, eta beste batzuk, berriz, edo oso gutxi gauzatu ahal izan dira, edo ezin izan dira hasi ere egin.

Hala gertatu da 6. ardatzarekin (Elkarrekin sortuz berritzea): ez da behar bezala zabaldu, batez ere kanpoan zabaltzeari dagokionez, oraingoan ere mugatuak direlako hainbeste proiekturi aurre egiteko erabilgarri dauden giza baliabideak. Barne-mailan, berriz, aipatzekoa da aurrerapauso ugari egin direla ardatz horretan, JAKINGUNEn talde laguntzaile berriak sortu baitira.

Bestalde, BPPren ikuspegi integralaren arabera, Planean Jaurlaritzako beste organo eta sail batzuei dagozkien proiektuak eta jarduerak sartu ziren, Plana sustatzen duen organotik kanpokoak, hain zuzen. Proiektu eta jarduera horien gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna mugatuta dago organo eta sail horien inplikazio-graduaren arabera. Faktore mugatzailea izan da, bereziki, 3. ardatzean (Antolamendua egokitzea) sartutako proiektuak sustatzeko.

Aipatutako alderdi horiez gain, komeni da aurreko BPPn ikasitako zenbait kontu gogora ekartzea, haietako asko indarrean baitaude oraindik ere 2014-2016 Berrikuntza Publikoaren Planaren ondoren, ebaluazio-txosten honetako 4. Ikasitako irakaspenak atalean adierazi bezala.



### 3. Helburu estrategikoen ebaluazioa


Ikuspegi honetan, 2014-2016ko BPPan jasotako helburu estrategikoen irismen-mailaren azterketa bat egiten da:

- **Administrazio irekia:** Gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea administrazio publikoan.
- **Administrazio eraginkorra:** Hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet...) eskura daitezkeen kalitatezko zerbitzuen eskaintza garatzea.
- **Administrazio efizientea:** Administrazio-kudeaketan efizientzia hobetzea; horretarako, erakundea egokitu, prozedurak erraztu eta teknologia eguneratu behar da.
- **Administrazio berritzailea:** Administrazioan berrikuntza sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.

Jarraian, helburu guztietan lortutako betetze-maila laburbiltzen da, bakoitzari loturiko adierazleen arabera.

## Administrazio irekia

Helburu estrategiko hau zenbateraino bete den neurtzeko, honako adierazle hauek ezarri dira BPPan:



## Helburuak betetzea

### Gardentasuna eta kontuak ematea:

- Autonomia-erkidegoen gardentasunaren [2014ko](#) eta [2016ko](#) indizearen emaitzak; EAE lehen posizioan, 100 puntutik 100 eskuratuta. 2016an nazioarteko gardentasunaren ebaluazioa (INCAU) benetako erronka izan da, sartu dituzten adierazle berriak konplexuak izan baitira, eta ebaluazio kuantitatiboaz gain, ebaluazio kualitatiboa ere egin baitute, informazioa erraz eskuratzeko moduan argitaratu behar baitzen, modu ulergarrian, eguneratua eta berriz erabilia ahal izateko moduan. Informazio guztia eskuragarri dago Gardena-gardentasunaren gure atarian.
- 2015eko urtarrilean jarri zen martxan informazio publikorako irispiderako eskubidea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea indarrean sartu baino urte bete lehenago, hain zuzen. [Informazioa](#) GARDENA atarian argitaratu zen.
- Uraren kudeaketaren gardentasun-indizeen emaitzak 2015: URA-Uraren Euskal Agentzia lehen postuan (100 puntutik 94.9 puntu) <http://transparencia.org.es/intrag-2015/>





- [Open Data Euskadi](#) 2016/1/1etik 2016/12/15era arte, 163 dataset berri sortu dira: 2013an 68, 2014an 89 (%30eko hazkundera), 2015ean 116 (%30eko hazkundera) eta 2016an 163 datu-multzo sortu dira (%40ko hazkundera). 2016ko abenduaren 15ean, guztira 2.646 datu-multzo zeuden.
- [Eusko Jaurlaritzan eta haren sektore publikoan gardentasuna ezartzeko laguntzarako gardentasun-gida](#) argitaratzea (amaituta dago, jendaurrean zabaltzeko prozesuan, eta barne ezarpenean).

### Herritarren parte-hartzea

- 2013ko abenduaren 18an, gizartean zabaldu zen EA Eren Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria egiteko erronka. 2014ko abenduaren 19an, euskal gizartean Liburu Zuri hori aurkeztu zen abiapuntu gisa. Horretan, 450 pertsonak eta 150 entitatek baino gehiagok hartu zuten parte.
- 2015 eta 2016. urtetan, Liburu Zuri horretan ezarritako hainbat konpromiso gauzatu dira. 2016ko urtarrilean eman zen jendaurrean horien berri eta gauza bera egingo da 2017ko urtarrilean. Laburbiltzeko, honako hau esan daiteke:
  - Proiektu pilotuak garatzea Eusko Jaurlaritzan (n: Lurralde-antolamenduaren [gidalerroak](#) egitea; Berdintasun Legearen ebaluazio partekatua; [Elkarlan Zuzenbideari](#) eta [elkarlan kulturari](#) bultzada ematea; [Herritarren zientziari](#) bultzada ematea)
  - Balio publikoa sortzeko herritarren ekimenengatik sariak emateko deialdia. Ebatzi dira [2015eko](#) eta [2016ko](#) Elkarlan deialdiak. 59 eta 49 proiektu aurkeztu dira, hurrenez hurren.
  - [Herritarren prozesu parte-hartzaileak exekutatzeko gida](#) argitaratzea, politika eta zerbitzu publikoak antolatzean, exekutatzean eta ebaluatzean prozesu parte-hartzaileak diseinatzen eta exekutatzeko laguntzeko (amaituta dago, jendaurrean zabaldu da eta barne-ezarpenerako prestakuntzan dago)
  - [Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko eredia](#) egitea.
  - Osasunean parte hartzeko Gida bat argitaratzea (amaituta eta jendaurrean zabaltzeko eta antolakundearen ezartzeko prozesuan).
- Liburu Zuriak eta bere zabalkundeak nazioarteko aintzatespena izan zuen 2016an, Nazio Batuen Eskualdeetako Praktika Onen saria eman baitzioten ORU FOGAR eta Garapenerako Nazio Batuen Programak (NBGP) antolatutako lehiaketaren barruan "Balio publikoa batera sortzea: Euskadi parte-hartzaileago, irekiago eta gardenago baterantz" proiektuari.




- Hiru foru aldundiekin batera dihardute Euskadin gizarte-berrikuntzarako estrategia komuna lantzeko.
- Euskal Administrazio-ereduari buruzko azterketa prospektiboa ezin izan da egin.

### **Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Legea**

- 2014ko irailaren 16an, Euskadiko Herri Administrazioari buruzko Legea onetsi zen Gobernu Kontseiluan, eta horren barruan sartzen dira Gobernu Onaren Oinarriak. [Akordioa](#)
- Apirilaren 23an, Eusko Legebiltzarretik erretiratu zen, Legebiltzarreko taldeek aurkeztutako zuzenketak aztertzeko. Proposamenetako bat da, hain zuzen, bi lege-proiektutan banatzea.
- 2015eko azaroaren 10ean, Gobernu Kontseiluak bi lege-proiektu onartu zituen. [EAEko Sektore Publikoaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko lege-proiektua](#) eta [EAEko Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Partaidetzaren eta Gobernu Onaren lege-proiektua](#).
- Lehendakariaren abuztuaren 1eko 2016/23 DEKRETUAK Eusko Legebiltzarra desegin zuen, eta hauteskundeak deitu ziren; ondorioz, bertan behera geratu ziren bi lege-proiektuak.
- Administrazioen informazio publikorako irispidea ukatzeagatiko erreklamazioei erantzuteari dagokionez 19/2013 Legea betetzen dela ziurtatzeko, [irailaren 23ko 128/2016 Dekretua](#) eman zen, Informazio Publikorako irispiderako Euskal Batzordeari buruzkoa eta 2016ko urriaren 6ko Agindua, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kideak izendatzen dituen eta batzordearen osaera jakinarazten duena. Dagoeneko, badihardu Batzordeak.

## Administrazio eraginkorra

Helburu estrategiko hau zenbateraino bete den neurtzeko, honako adierazle hauek ezarri dira BPPan:



## Helburuak betetzea

### Herritarrekiko elkarrekintza

- [Eusko Jaurlaritzako herritarrentzako kanal anitzeko arreta-zerbitzuaren eredu](#), 2012an argitaratua, 2014an eta 2015ean finkatu da. Hala, erabilgarri dauden kanal ezberdinen bidez (aurrez aurre, telefonoz eta Internetez) harremanetan jartzeko zerbitzu guztiak erabat arautzen dituen araurik onartu ez bada ere, EAEko sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko lege-proiektuan (gaur egun izapidetzen ari da) bai jasotzen da 76. artikuluan herritarrekin harremanetan jartzeko kanal anitzeko sistema.
- Zuzenean zerbitzua (aurrez aurrekoa nahiz telefono bidezkoa) erabiltzen duten pertsonen balorazioa, batez beste: 8,5 10etik (2015).

### Zerbitzu elektronikoak

- Interesdunek eskatuta hasitako **zerbitzu eta prozedurei dagokienez**, 2016. urteko laugarren hiruhilekoaren amaieran, % **68,5**eko lorpen-maila egon da xede zen **digitalizazio-mailari dagokionez**.
- **2016. urtean, aurrera egin da** Elkarreragingarritasun Sistema Orokorra sortzeko proiektuan (**elkarreragingarritasun-nodoa** ere esaten zaio). **Azterketa tekniko bat egin da**, aztertzeko elkarreragingarritasun-nodoa diseinatzeko kontuan izan beharreko plano ezberdinak (juridikoa, antolaketa, teknologikoa eta ekonomikoa). Azterketa horretan, konponbideak eta proposamenak aurkeztu dira, hiru foru-aldundien artean adostua direnak.




**Elkarreragingarritasaun-nodoa kudeatzeko euskarria izango den sistema informatikoa garatu da.** Sistema informatiko hori proba-fasean dago une honetan, eta nodoan inplikaturik dauden entitate hauek ari dira horretan: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta IZENPE.

**Aurreikuspenen arabera, 2017ko lehen sei hilekoan hasiko da funtzionatzen elkarreragingarritasaun-nodoa.**

- Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea. Eusko Jaurlaritzaren PLATEA-plataforma korporatiboaren bidez aurkeztutako datuen arabera, 2016an eskaeren %48,6 elektronikoki tramitatu dira, eta %51,4, presentzialki. Ez da bereiztu nortzuek aurkeztu dituzten eskaerak, pertsona fisikoek ala juridikoek, baina ikusten da beren zerbitzuak batez ere enpresei ematen dizkieten sailetan igo dela eskaera elektronikoen portzentajea. Hala, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean %75,9koa da elektronikoki egindako eskaeren kopurua, eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean, % 95,1koa.

## Administrazio efizientea

Helburu estrategiko hau zenbateraino bete den neurtzeko, honako adierazle hauek ezarri dira BPPan:



## Helburuak betetzea

### Antolamendua egokitzea

- Administrazio orokorra eta sektore publikoa dimentsionatzea: 2013an onartutako birdimentsionamendu-plana exekutatzen ari da, eta 2017an amaituko da.
- Lanpostuak berrikustea eta premia berrietara egokitzea: 0.
- Administrazio elektronikoa antolatzeko euskarria sortzea:
  - CAUko zerbitzu elektronikoak sortzea: 2015eko urria
  - Sortu da Berrikuntza Publikoari euskarria emateko administrazio-unitatea, hiru arloz osatua: Web zerbitzua, Gardentasuna eta Zerbitzu Elektronikoen Unitatea (2016)
  - Bi pertsona gehiago (5 guztira), Zerbitzu eta prozedura elektronikoak eta tramitazio elektronikoaren aplikazioak Tutorizatze Zerbitzuan (2016ko abendua)
- Administrazio elektronikoko prestakuntza presentziala jaso duen pertsona-kopurua: 1330 (2016ko azaroan)



## Politika publikoen ebaluazioa

- Herritarrek parte hartzeko prozesuen ebaluazio-eredua egin da. Eredua ezartzeko dago, eta herritarren parte-hartzeari buruzko epigrafean aipatu da.

## Kudeaketa hobetzea


- Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua, 2014ko urrian argitaratua.
- “Egiten Ikasi” prestakuntza-ekintza; lehenengo bi txandak egutegiaren arabera eman ziren, eta 2016ko otsaileko hirugarrena 2015era aurreratu zen.
- Unitateen diagnostikoak eta hobekuntza-planak egitea, finkatutako egutegiaren arabera (ikus azpiproiektu hauek: 4.4.2. Ebaluazioaren plangintza eta garapena eta 4.4.3. Hobekuntza Planen plangintza, garapena eta jarraipena)
  - I. taldea: 2015eko iraila – 2016ko uztaila. 2016ko ekaina-uztaila. Hobekuntza Planaren Exekuzioa: 3 urte (2016ko uztaila-2019ko uztaila)
  - II. taldea: 2016ko iraila – 2017ko uztaila. Sekuentzien arabera. Zehazteke
  - III. taldea: 2017ko iraila – 2018ko uztaila. Sekuentzien arabera. Zehazteke
- 2016ko otsail-apirilean, lau antolaketa-unitateko proiektu pilotu bat garatu zen, eta, horri esker, hobetu eta doitu ahal izan ziren prozesuaren diseinua, lehen aipaturiko dokumentazioa eta laguntzarako aplikazio informatikoa.
- Gobernu Kontseiluaren 2016ko ekainaren 7ko Erabakiaren bidez onartu zen kudeaketa-ebaluazioak eta sendotze- eta hobetze-planak egiteko eredua.

## Barne-kudeaketa elektronikoa

- Intranet berria ezartzea 2015eko abendurako (% 85eko aurrerapena). Erabilgarritasun berriak ezarriz joatea 2016ko abendura arte.
- Aurrerapausoak eman dira ofiziozko prozeduren digitalizazioan; hala, erabat digitalizatu dira EAEko Administrazio Orokor guztirako eta haren mende dauden organismo autonomoetarako, zeharka, prozedura hauek: barne-kontsultak eta eskaerak; zirkularrak, zerbitzuko jarraibideak eta aginduak, Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegian (EEAEn) egin beharreko erreklamazio ekonomiko-administratiboak; eta zehapen-prozedura (salbu eta diziplinazko zehapenak). Langileak kudeatzeko barne-prozesuak alde batera utzita, kalkulatu da gutxi gorabehera digitaliza daitezkeen barne prozesuen % 75 digitalizatu dela.

## Administrazio berritzailea

Helburu estrategiko hau zenbateraino bete den neurtzeko, honako adierazle hauek ezarri dira BPPan:



### Helburuak betetzea:

#### Profesionalengadik berritzea

- JAKINGUNE eremuan, 2.069 kide daude talde parte-hartzaile mota ezberdinetan. Alabaina, kontuan hartzen badugu hainbat taldek ez duela inongo jarduerarik egin BPP honetan, kopurua 1.402ra jaisten da.

#### Herritarrekin berritzea

Elkarrekin sortuz berritzeko kanpo-alderdi honek ez du inolako oihartzunik izan, aldi berean hainbeste proiektu jorrazteko giza baliabide nahikorik ez dagoelako.

Nolanahi ere, Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria herritarrekin batera sortu da; izan ere, orri bat eman zitzaion zuriz, eta bertan jasotzen den guztia partaidetza-lanaren fruitua izan da, aurrez aurreko saioen eta taldean sortzeko eta idazteko tekniken bidez (Ikusi 1.4 proiektua).

## 4. Ikasitako irakaspenak

Aurreko BPPak aplikatzearen ondorioz (2011-2013 eta 2014-2016) hainbat elementu identifikatu ditugu, kontuan hartu behar direnak berrikuntza publikoaren arloan aurrerantzean ezartzen diren estrategiak diseinatzeko. Hona funtsezkotzat jotzen diren elementu horiek:

- **Baliabide nahikoa:** Behar besteko baliabide-faltaren ondorioz, Planeko proiektu asko ezin izan dira garatu bere osotasunean; areago, batzuk ezin izan dira martxan jarri. Hori dela eta, garrantzitsua iruditu zaigu planetan zehaztea zer baliabide behar diren proiektu bakoitza aurrera ateratzeko, nola lortuko diren baliabide horiek, baita proiektuaren organo arduradunak edo, hala badagokio, baliabideak emateko ardura duen organoak, baliabide horiek ziurtatzeko konpromisoa hartzea ere, proiektuen bideragarritasuna ziurtatzeko eta, ahal den neurrian, baliabide horiek planeko aurreikuspenen arabera prest egongo direla bermatzeko.
- **Sailen eta esku hartzen duten eragile guztien konpromisoa.** Aldaketa helburu duten ekimenek arrakasta izateko edo porrot egiteko faktore nagusietako bat horietan esku hartzen duten eragileen konpromisoa da. Ildo horretan, BPPak lortu behar du sailek eta profesional publiko gehienek sentitzea plana beraiena dela eta planaren garapenaren partaide direla; hori funtsezkoa da.
- **Lidergoa.** Eta aurreko puntuei oso lotuta dago proiektu bakoitzak bere liderra izatea, ekimenaren garapenarekin konprometituko dena. Eta hori da, hain justu, azken BPP honetan gertatu ez dena. Premisa hori egokia da, halaber, plan osoari dagokionez. Lidergo sendoa, bai Herri Administrazio eta Justizia Sailarena bai Funtzio Publikoko Sailburuordetzarena, nahitaezko baldintza da plana maila globalean egokiro hedatu dadin Eusko Jaurlaritzaren sail guztietara eta ezarritako helburuekin bat eginda aurrera egin dezan. Halaber, esan beharra dago gobernantzaren inguruko gaietan funtsezkoa dela, gainera, Jaurlaritzaren lehendakaritzaren lidergoa.
- **Zeharkako ikuspegia.** Ildo beretik, agerian jarri da berrikuntza publikoko politiken eta ekimenen zeharkako ikuspegia sendotzeko premia dagoela, Eusko Jaurlaritzaren zeharkako estrategiarekin edo estrategia korporatiboarekin bat datozen jardueri lehentasuna emanaz izaera isolatuagoa edo sektorialagoa dutenei eman beharrean. Zeharkako ikuspegi hori hasiera-hasieratik aplikatu behar da administrazio elektronikoko proiektuetan, sailen eta administrazio-erakunde horizontalen partaidetza aktiboarekin.
- **Aldaketaren komunikazio- eta kudeaketa-plana.** Berrikuntza Publikoaren Planaren helburuek aldaketa handia ekarriko dute gauzak egiteko moduan, eta horrek antolaketa guztian eragingo du. Inplikaturiko pertsona guztiek Plan honen filosofiarekin eta helburuekin identifikatzeko,





jakin behar dute, ezinbestean, zer espero den haiengandik eta nola hartu behar duten parte, eta, horretarako, ondo komunikatu eta kudeatu behar da aldaketa.

- **Prestakuntza.** Gauzak egiteko beste modu bat izateko, beste trebetasun eta gaitasun batzuk behar dira. Planaren ekimen bakoitzean sortzen diren prestakuntza-premia espezifikokoak identifikatzeaz harago, ezinbestekoa da prestakuntza orokorreko plan bat izatea, erakundeko langileei testuinguru berrira egokitzeko tresna egokiak ematea xede izango duena. Besteak beste, ezaugarri hauek behar dira erakunde guztirako: hainbat balio edukitzea —adibidez, berrikuntza eta zerbitzua emateko jarrera— eta trebetasun teknologikoak izatea teknologia berrietan, webguneetan, komunikazio-kanal berrietan eta sare sozialetan.
- **Antolaketa-egituren egokitzapena.** Egungo ereduan oinarritu diren antolaketa-egiturak egokitu egin behar dira berrikuntzaren eta administrazio elektronikoaren eredu berria ezartzeak dakartzan zeregin berrietara. Era berean, lanpostuen profilak zeregin eta ardua berrien arabera eguneratu behar dira, berrikuntzaren eta administrazio elektronikoaren bidea hartzeko.
- **Kontrola eta jarraipena.** Kudeaketa-egitura konplexuak ezarri beharrik izan gabe, beharrezkoa da Planaren inguruan proiektu-diziplina bat izatea. Proiektu bakoitzean eta, oro har, Planean, zuzendaritzarako, koordinaziorako, jarraipenerako eta kontrolerako ezarritako organo egokiek Planari behar duen bultzada emango diote indarraldi osoan zehar.

## 5. Egikaritze-egoeraren eta proiektu eta azpiproiektuen balorazioaren laburpen-taula

	Egoera			Balorazioa(*)		
	Amaitua	Aribidean	Hasi gabe	Positiboa	Hala-nolakoa	Negatiboa
<b>ARDATZ bakoitzaren proiektuak eta azpiproiektuak</b>						
<b>1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona</b>						
1.1: Gardentasuna eta kontuak ematea						
1.1.1 Gardentasunaren eta kontuak ematearen kultura sustatzea						
1.1.2 Opendata Euskadiren eboluzioa						
1.2: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Legea						
1.3: Politika publikoen ebaluazioa						
1.4: Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria						
1.5: Gizarte-berrikuntza bultzatzea, Basque Social Innovation delakoaren bidez						
1.6: Administrazio-ereduari buruzko azterketa prospektiboa						
<b>2. ardatza.- Herritarrekiko elkarrekintza</b>						
2.1. Herritarrekiko elkarrekintza-eredua						
2.1.1 Herritarrekiko elkarrekintza-eredua definitzea						
2.1.2 Herritarrekin kalitatezko elkarrekintza izateko konpromisoa						
2.1.3 Herritarrekiko elkarrekintzaren aginte-koadroa						
2.1.4 Dokumentuak estandarizatzea eta normalizatzea						
2.2. Herritarrekiko elkarrekintza-zerbitzuak						
2.2.1 Webaren elkarrekintza-eredu berrira egokitzea						
2.2.2 Herritarrekiko elkarrekintza-bide berriak (sare sozialak eta bestelako plataformak)						
2.2.3 Herritarrekiko elkarrekintzarako zerbitzu elektronikoen eskaintza						
2.2.4 Zuzenean-eko informazioaren barne-kudeaketaren sistema hobetzea						
2.3. Herritarrekiko elkarrekintzarako plataforma orokorra						
2.3.1 Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen eboluzioa						
2.3.2 "Nire kudeaketak" espedienteen kontsulta- eta tramitazio-sistemaren eboluzioa						
2.3.3 Telefono bidezko kanalaren eboluzioa						
2.4. Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea						
2.4.1 Zerbitzu katalogoa osorik eta eguneratuta argitaratzea egoitza elektronikoa						
2.4.2 Identifikazio eta sinadura elektronikoen modu berriak						
2.4.3 Zerbitzu elektronikoen CAU sortzea						
2.4.4 KZgunea sare publikoaren lankidetzaren zerbitzu elektronikoa hedatzeko						
2.4.5 Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzeko berariazko ekintzak						
<b>3. ardatza.- Antolamendua egokitzea</b>						
3.1. Administrazio Orokorraren eta Sektore Publikoaren dimentsionamendua						
3.2. Zerbitzu horizontalak arrazionalizatzeko azterketa						
3.3. Lanbide-profilak eguneratzea						
3.4. Lurralde-antolamendua egokitzea						

3.5. Intranetaren eta barne-kudeaketa elektronikoaren eboluzioa									
3.5.1 Intranetaren eboluzioa									
3.5.2 Tramitazio elektronikoaren mahaigaina: Tramitagune									
3.5.3 Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan papera digitalizatzea									
<b>4. ardatza.- Kudeaketa hobetzea</b>									
4.1. Aurrerabide proiektuaren garapenerako laguntza sortzea									
4.2. Kudeaketa aurreratuaren eredia									
4.3. Oinarrizko prestakuntza eta ezarpenerako laguntza									
4.3.1 Edukiak eta ereduak diseinatzea									
4.3.2 Intendentzia, taldeak osatzea eta prestakuntza/ekintza garatzea									
4.4. Kudeaketaren ebaluazioa eta kudeaketa hobetzeko planak									
4.4.1 Kudeaketa Ebaluatzeko eta Hobekuntza Planak Idatzi eta horien Jarraipena egiteko Eskuliburua									
4.4.2 Ebaluazioaren plangintza eta garapena									
4.4.3 Hobekuntza Planen plangintza, garapena eta jarraipena									
4.5. Kudeaketa hobetzeko kolaboratzaileen sarea									
4.6. Beste administrazio publikoen eskura jartzea									
<b>5. ardatza.- Administrazio elektronikoa</b>									
5.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia									
5.1.1 Administrazio elektronikoaren antolamendu- eta funtzionaltasun-eredua sendotzea									
5.1.2 Zerbitzu elektronikoaren euskarri den administrazio-unitatea sortzea									
5.1.3 Zerbitzu elektronikoaren euskarri diren administrazio-unitateak sortzea sailetan									
5.1.4 Zerbitzu elektronikoaren aldaketa kudeatzea									
5.1.5 Administrazio Elektronikoaren Behatokia									
5.2. Zerbitzu elektronikoaren eskaintza									
5.2.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana									
5.2.2. Administrazio Orokorreko enpresen erregistroak koordinatzea									
5.2.3. Administrazioen arteko erregistro-trukeak automatizatzea									
5.3. Elkarreragingarritasuna									
5.3.1 Elkarreragingarritasun Sistema Orokorra									
5.3.2 Elkarreragingarritasun Zerbitzuen Katalogoa									
5.3.3 Elkarreragingarritasun Zerbitzuak zabaltzea									
5.4. Zerbitzu Elektronikoaren Plataforma Orokorra									
5.4.1 Zerbitzu Katalogoaren eboluzioa eta PLATEAko sistemekiko integrazioa									
5.4.2 Zerbitzu elektronikoaren plataforma orokorraren eboluzioa									
5.4.3 Pasabideen eboluzioa									
5.4.4 Sarrera- eta irteera-erregistroa									
5.4.5 Zerbitzu elektronikoaren aginte-koadroa									
5.5. Beste sistema korporatibo batzuk									
5.5.1 EIZU									
<b>6. ardatza.- Elkarrekin sortuz berritzea</b>									
6.1. Profesionalengandik berritzea									
6.1.1 Sare profesionalak									
6.1.2 Praktika-komunitateak (PK)									
6.1.3 Berrikuntza-lantaldeak (BL)									
6.2. Herritarrekin berritzea									

(\* ) Txostenaren xede den epealdirako antolatuta dauden proiektuak aztertu dira.

## 6. Proiektuen egikaritze-fitxak

### *1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona*

<b>Ardatz estrategikoa:</b>	<b>1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona</b>	<b>Proiektua:</b>	<b>1.1. Gardentasuna eta kontuak ematea</b>			
<b>Deskribapena</b>	Gardentasuna ezartzea bilatzen da, herritarrek administrazioaren jarduera ezagutzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, herritarrek kudeaketa publikoan duten parte-hartzea eta informazioa jakiteak ematen duen kontrol soziala sustatuz.					
<b>Helburu orokorrak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gardentasunean aurrera egitea, irispidea errazeko zerbitzu baten bidez eta herritarrak hautatzen duen bidea erabiliz garatu ahal izateko informazio esanguratsua, koherentea, aproposa, kalitate gorenekoa eta azkarra emateko tresnak.</li> <li>Opendata Euskadi modu esanguratsuan lantzea, datu publikoak zabaltzeko orduan liderrak izateko bai Estatuan bai Europan.</li> </ul>	<b>Helburu operatiboak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEK lider izaten jarraitzea Estatuako gardentasun-rankingetan, eta nazioarteko erreferentzia-ereduetarantz joatea.</li> <li>Argitaratutako dataset kopurua % 10 handitzea urtero</li> <li>Datuak eskaintzeko formatu-motak ugaritzea</li> </ul>	<b>Adierazleak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Autonomia-erkidegoen nazioarteko gardentasun-rankingeko posizioa</li> <li>Spainian ura kudeatzen duten entitateen nazioarteko gardentasun-rankingeko posizioa</li> <li>Argitaratutako dataset kopurua</li> </ul>	
<b>Egikaritzea:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikusi helburu operatiboei, adierazleei eta egikaritze-mailari buruzko xehetasunak azpiproiektuen fitxetan.</li> </ul>					
<b>Arduraduna:</b>	<b>Aurrekontua:</b>	<b>Gastu erreala:</b>	<b>Aldi baterako aurreikuspena:</b>	<b>Egikaritzeko benetako epea:</b>	<b>Egoera:</b>	<b>Balorazioa:</b>
Gidaritza politikoa: Lehendakaritza Bultzada operatiboa: DACIMA	2014: 20.000,00 € 2015: 20.400,00 € 2016: 20.808,00 € GUZTIRA: 61.208,00 €	2014: 80.767,36 € 2015: 142.151,32 € 2016: 231.073,14 € GUZTIRA: 453.991,82 €	Epea: 3 urte Hasiera: 2014ko urtarrila Amaiera: 2016ko abendua	Hasiera-data: 2014-01-01 Azken eguna: 2016-12-31	<input checked="" type="checkbox"/> Amaitua <input type="checkbox"/> Aribidean <input type="checkbox"/> Hasi gabe	<input checked="" type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Hala-nolakoa <input type="checkbox"/> Negatiboa
<b>Oharrak:</b>						

<b>Ardatz estrategikoa:</b>	<b>1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona</b>	<b>Proiektua:</b>	<b>1.1. Gardentasuna eta kontuak ematea</b>
<b>Azpiproiektua:</b>	<b>1.1.1 Gardentasunaren eta kontuak ematearen kultura sustatzea</b>		
<b>Deskribapenaren laburpena:</b>	Gardentasuna ezartzea bilatzen da, herritarrek administrazioaren jardura ezagutzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, herritarrek kudeaketa publikoan duten parte-hartzea eta informazioa jakiteak ematen duen kontrol soziala sustatuz.		
<b>Helburu operatiboak:</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEk lider izaten jarraitzea Estatuko gardentasun-rankingetan, eta nazioarteko erreferentzia-ereduetarantz joatea.</li> <li>Kalitatez eta ezarritako epearen barruan erantzutea eskaeren % 90i.</li> </ul>			
<b>Egikaritzea:</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>Autonomia-erkidegoen gardentasunaren 2014ko indizearen emaitzak; lehen posizioan, 100 puntutik 100 eskuratuta. <a href="http://transparencia.org.es/incau-2014/">http://transparencia.org.es/incau-2014/</a></li> <li>Uraren kudeaketaren gardentasun-indizeen emaitzak 2015: URA-Uraren Euskal Agentzia lehen postuan (100 puntutik 94.9 puntu). <a href="http://transparencia.org.es/intrag-2015/">http://transparencia.org.es/intrag-2015/</a></li> <li>Autonomia-erkidegoen gardentasunaren 2016ko indizearen emaitzak; EAE lehen posizioan, 100 puntutik 100 eskuratuta, eta ebaluazio kualitatiboan A maila lortuta, mailarik altuena: Informazioaren argitalpenak kalitate-maila altukoak dira, erraz eta aldizkakotasunez eskura daitezke, deskripzio-maila egokiarekin eta, hautaturiko adierazleen arabera, formatu berrerabilgarriak erabiltzen dira gehienetan. <a href="http://transparencia.org.es/incau-2016/">http://transparencia.org.es/incau-2016/</a>. Ebaluazio honen exigentzia-maila igo denez, nabarmen hobetu da GARDENAN honako hauei dagokienez argitaraturiko informazioaren kalitatea: <ul style="list-style-type: none"> <li>Datuetarako irispide zuzena (kontratuak, diru-laguntzak, dokumentu garrantzitsuak, LZ...), on-lineko informazioa eguneratuarekin.</li> <li>Informazioa ulertzen laguntzen duten bistaratze grafikoak</li> <li>Informazioa eguneratzeko aldiak zehaztea</li> <li>Orokortu egin da formatu berrerabilgarrietan argitaratzea.</li> </ul> </li> <li>Informazio Publikorako irispidea izateko eskubidea ezartzea, <a href="#">Gobernu Kontseiluak 2015/01/13an hartutako erabakiaren</a> bidez,, 19/2013 Legea indarrean jarri baino urtebete lehenago. Eskatutako informazioa behar beste kalitatez, egunerokotasunez eta irisgarritasunez argitaratzea.</li> <li>2015/01/13an ezarri zenetik, jasotako informazio-irispiderako eskubideen eskaera-kopurua: <ul style="list-style-type: none"> <li>2015ean, 30: 22ri informaziorako irispide erabatekoa eman zitzaion, eta beste bati partziala; 3 ukatu egin ziren, eskumen ez izateagatik edo bikoiztasunagatik; beste 1 ez zen eman eskatzaileak atzera egin zuelako, eta beste 3 ukatu egin ziren, eragindako hirugarrenak baimenik eman ez zuelako eta informazioa pribatua zelako. Birjartzeko errekurso bat jaso zen. Erantzuteko batazbesteko denbora 27 egunekoa izan da.</li> <li>2016an, 60: 45 kasutan, erabateko irispidea eman zen; 6 ez ziren onartu, eskumenik ez izateagatik edo informazio osagarria izateagatik edo bikoiztua egoteagatik; beste 1, eskatzaileak atzera egiteagatik; 1 ukatu egin zen; 1 organo eskudunari igorri zitzaion; 3 baliogabeak ziren, bikoiztasuna gertatzen zelako edo ez zutelako</li> </ul> </li> </ul>			

loturarik informaziorako irispidearekin, eta 3 ebatzi gabe daude. Birjartzeko errekurtsu 1 jaso zen. Erantzuteko batzbesteko denbora 20 egunekoa izan da. Informazio hori Gardentasun Atarian argitaratuta dago. <http://www.gardena.euskadi.eus/transparencia/-/derecho-de-acceso-a-la-informacion-publica/#8786>

- Erregulatu eta martxan jarri da informazio publikorako irispide-eskubideari buruzko erreklamazioei erantzuteko organoa: Informazio publikorako irispide-eskubiderako Batzordea, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortua. <http://www.gardena.euskadi.eus/transparencia-general/-/derecho-de-acceso-a-la-informacion-publica/#4191>
- Gardentasun-gidaren edizioa eta zabalkundea

Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:	Egoera:	Balorazioa:
Gidaritza politikoa: Lehendakaritza Bultzada operatiboa: DACIMA	Epea: 3 urte Hasiera-data: 2014 Azken eguna: 2016	Hasiera-data: 2014-01-01 Azken eguna: 2016-12-31	<input checked="" type="checkbox"/> Amaitua <input type="checkbox"/> Aribidean <input type="checkbox"/> Hasi gabe	<input checked="" type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Hala-nolakoa <input type="checkbox"/> Negatiboa
<b>Oharrak:</b>				

<b>Ardatz estrategikoa:</b>	<b>1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona</b>	<b>Proiektua:</b>	<b>1.1. Gardentasuna eta kontuak ematea</b>
<b>Azpiproiektua:</b>	<b>1.1.2 Opendata Euskadiren eboluzioa</b>		
<b>Deskribapenaren laburpena:</b>	Proiektuaren helburua da Opendata Euskadiren eboluzioa sustatzea, datuen, euskarrien eta aplikazioen eskaintza hobetuz, ataria berriz diseinatuz, funtzio berriak garatuz, blogaren eta tweeten bidez sare sozialetan hedatuz, eta garatzaileei laguntzeko edukiak hobetuz.		
<b>Helburu operatiboak:</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>Argitaratutako dataset kopurua % 10 handitzea urtero</li> <li>Datuak eskaintzeko formatu motak ugartzea</li> <li>Ataria eguneratzea, bilatzaile hobe baten bidez</li> <li>Astean 5 txio argitaratzea sare sozialetan</li> <li>Funtzionaltasun berriak eta garatzaileentzako laguntzak garatzea</li> </ul>			
<b>Egikaritza:</b>			
<p>Datu publikoak irekitzeari bultzada bat emateko, <a href="#">Plan operatibo bat ireki zen, Opendata Euskadiren eboluzioa sistematizatzen lagundu duena.</a></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>1. helburua: <ul style="list-style-type: none"> <li>2016/1/1etik 2016/12/15era arte, 163 dataset berri sortu dira: 2013an 68, 2014an 89 (%30eko hazkundera), 2015ean 116 (%30eko hazkundera) eta 2016an 163 datu-multzo sortu dira (%40ko hazkundera).</li> <li>2016ko abenduaren 15ean, 2646 datu-multzo zeuden kontatuta.</li> </ul> </li> <li>2. helburua: <ul style="list-style-type: none"> <li>2015ean, hiru formatu berri erantsi zitzaizkien 60 dataset baino gehiagori (XLS, XML, JSON).</li> <li>Elkarreragingarritasunaren arau teknikoa betez, RDF - DCAT formatua erantsi zen dataset-en 2500 metadatu-fitxa baino gehiagotan.</li> <li>2016an, Linked Open Data proiektu bat jarri zen abaian, datuak formatu semantikoetan eskaintzen hasteko.</li> </ul> </li> <li>4. helburua: <ul style="list-style-type: none"> <li>Izan ere, berrerabiltzen dutenek administrazio/atari bakoitzaren katalogoa besterik ez dute bilatzen; beraz, gure datu-multzoen bilaketa errazteko asmoz, Administrazio Publikoen Ministerioko datuen katalogoan sartu gara (datos.gob.es). 2016an, Open Data Euskadi katalogo guztia federatu dugu.</li> <li>2016an, Bilboko Udalaren eta Gipuzkoako Aldundiaren datuak Open Data Euskadi katalogoan federatzeko proiektu bat jarri dugu abian. 2017ko udan bukatzea aurreikusten da.</li> <li>Datuen katalogoaren bilatzaile berri bat jarri dugu martxan, honako hobekuntza hauek eransten dituena: organismoaren arabera ere bilatzeko aukera, bilaketak irizpideak aldi berean konbinatuz egitea, testu librean bilatzeko hobekuntzak eta datu estatistikoak katalogoko gainerakoekin fusionatzea.</li> </ul> </li> </ul>			



- 5. helburua:
  - 2014/01/01etik asteen 3 tweet argitaratu dira.
  - Twitterreko jarraitzaile-kopurua handitu dugu: 2.200, 2014ko maiatzean; 2.730, 2015eko azaroan, eta 3.089 2016ko abenduan.
- 6. helburua:
  - 2015ean, doako 3 tailer egin ziren garatzaileentzat. Horietan, berrerabili direnen benetako adibideak erakutsi ziren (60 plaza % 100ean bete dira).
  - 2015-2016 urteetan zehar, berrerabiltzaileei zuzendutako bi lehiaketa antolatu ziren, eta 50 hautagai aurkeztu ziren.
  - Garatzaileei laguntzeko materiala argitaratu dugu: datuen benetako berrerabilpenen kodea.

Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:	Egoera:	Balorazioa:
DACIMA	Epea: 3 urte Hasiera: 2014 Amaiera: 2016	Hasiera-data: 2014-01-01 Azken eguna: 2016-12-31	<input checked="" type="checkbox"/> Amaitua <input type="checkbox"/> Aribidean <input type="checkbox"/> Hasi gabe	<input checked="" type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Hala-nolakoa <input type="checkbox"/> Negatiboa
<b>Oharrak:</b>				

<b>Ardatz estrategikoa:</b>	<b>1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona</b>	<b>Proiektua:</b>	<b>1.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Legea</b>			
<b>Deskribapena</b>	EAEko Herri Administrazioaren Legearen aurreproiektua egiteko proiektua gidatu nahi da, eta bertan txertatu, antolamenduari eta funtzionamenduari dagokionez, XXI. mendeko gizartearen eskakizunei erantzuteko berrikuntza publikoaren eta Gobernu Onaren ildo berriak: egitura arin eta malguak, administrazio eraginkorra, gardentasuna, herritarrek parte hartzea, publikoaren eta pribatuaren arteko eta administrazioen arteko lankidetzak...					
<b>Helburu nagusiak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko herri-administrazioaren etorkizuneko legean lege-neurriak txertatzea, Gobernu Onean oinarritutako administrazio on bat bihurtuz joan dadin</li> </ul>	<b>Helburu operatiboak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lege-proiektua onartzea 2014ko abendurako</li> </ul>	<b>Adierazleak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko Herri Administrazioaren Legearen aurreproiektua epearen barruan egitea, onartzea eta argitaratzea</li> </ul>	
